

# EUSKAL HERRIKO PARRILLA ETA BURRUNTZI LEHIAKETA

## Parrillaren sekretuaren zaindariak

"Oso lehen edizio arrakastatsua izan da; jendetza handia gerturatu da Trinitate plazara asteburu osoan zehar eta etorkizunean ere maila honi eustea espero dugu", adierazi du Jakitea elkarteko presidente den Xabier Zabaletak

**DONOSTIAKO TRINITATE ENPARAN-TZAN**, Euskal Herriko Parrilla eta Burduntzi Lehiaketaren aurreneko edizioa ospatu zen azaroaren lehen asteburuan, betiko euskal sukaldaritzaren alde lanean diharduen Jakitea elkarteak antolatuta.

Euskal parrillero onenetari-koak bildu ziren Donostiako udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako ekimenean; 15 parrillero guztira. Bederatzi izan ziren ostiralean: Muruetako Kamiñiko (Bizkaia), Azkaingo Txopinondo (Lapurdi), Larrabetzuko Hormaondo (Bizkaia); Hondarribiako Kaialde (Gipuzkoa); Lizarrako Astarriaga (Nafarroa); Iruñako Iturrama (Nafarroa); Beasaingo Kattalin (Gipuzkoa) eta Beasaingo Urkiola (Gipuzkoa). Larunbatean, berriz, beste bost izan ziren jo eta ke lanean: Donostiako Ametzagaña (Gipuzkoa), Mutiloabeitiko Mutiloa (Nafarroa), Urionako Despena

de Arabarte (Araba), Zubietako Irigoien (Gipuzkoa) eta Astigarra-gako Astarbe (Gipuzkoa).

Den-denek parrillan artistak direla erakutsi zuten bi jardunaldi horietan. Rougie etxeko foie-grasak dastatzen zituzten bitartean, bertaratu ziren guztiek parrilleroen teknika tradizionalak ezagutzeko aukera izan zuten eta handik gutxira iritsi ziren mahaira parrillan erretako legatzak eta Dastatzen harategiak ekarritako txuleta paregabeak, biak ere puntu-puntuan. Edariak aukeran izan ziren: Mitarte ardoak, Cruzcampo garagardoa, Zabala sagardoa, Torelló cava, Aitona kafeak eta Basarana patxarana eta likoreak. Eta postrea ere, ezinhoba: Tolosako Gorrotxategik prestatutako hostopil karamelizatu zoragarria.

### Astarbetarrak irabazle

Egia esateko, epaimahaiak ez zuen batere lan errazik izan, bai-



azkenean, epaimahakide guztien puntuaketak kontuan hartuta, txapela irabazi zuten Astigarrragan dagoen Astarbe sagardotegiko Hur eta Joseba anaiek. Horrez gain, garagardo kutxa dezente eraman zuten etxera, Cruzcamporen eskutik. Izan ere, irabazlearen altuerarainoko garagardo kutxa kopurua emateko konpromezua hartu zuen garagardo-konpainiak eta bi izanda, bata bestearen gainera igo ziren Astarbetarrak.

Ilgandean, burrunntzi lehiaketaren txanda izan zen sei parrilleroen parte hartzearekin: Donostiako bi, Juan Bautista Etxabe eta Juantxo Escudero; Arizkune-ko Francisco Lakar nafarra; Lasarte-Oriako Joxean Lasa eta Roman Agirre Arruti eta Aiako Satxota sagardotegikoa. Bikoteka aritu ziren eta bikote bakoitzak 12 kilo inguruko bi bildots erre zituen.

Garaipena Lasarte-Oriako Joxean Lasak eta Juantxo Prietok lortu zuten eta txapelaz gain, kafea edonon egiteko makina eraman zuten etxera, Cafes Aitonak eskainia. Bertaratu ziren herriar guztiek eduki zuten bil-

Astarbetarrak bata bestearen gainera igo ziren ahalik eta garagardo kutxa gehien lortzeko. Argazkian, bi anaiak Aitor Zabaleta, Jakitea elkarteko presidente, eta Ohiana Maritorea aurkezlearekin batera oholitza gainean.

dotsa dastatzeko aukera. Izan ere, hiru euroren truke burrunntzian erretako bildots pintxoak eta potea hartzeko aukera eskaini zuten antolatzaileek. 700 pintxo inguru banatu zituzten eta jasotako dirua Etiopia-Utopia elkarteari eman dio Jakitea elkarteak.

Larunbat eguerdian, bestalde, parrillan egindako pintxo lehiaketa egin zuten, Alde Zaharreko zazpi tabernaren parte hartzearekin. Han bertan, plaza ondoan dagoen Txuleta lortu zuen lehen saria zapoz, olagarroz eta txibiz egindako brotxetari esker.

Lehen edizio honen balorzio positiboa egin du Xabier Zabaletak, Jakitea elkarteko presidentek: "Jendetza handia gerturatu da asteburu osoan zehar eta etorkizunean mailari eusten saiatuko gara", esan du.

